
D bitamina / Vitamina D

Aberastu bere heziketa! / ¡Enriquece su educación!

2-3 urteko umeen aurrematrikulazio-kanpaina.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

D bitamina Bizkaiko **23 udalerri** eta **3 mankomunitateren** ekimen bateratua da. Informazio-kanpaina hau Gabon ostean zabalduko dugu, 2-3 urteko umeen eskolatzeko-aldia baino zertxobait lehenago gurasoei bidalitako informazioaren inguruan hausnarketa egiteko astia izan dezaten. ALKARBIDEk, Bizkaiko euskara zerbitzuen bilgunea koordinatu du ekimena eta guztira **7600 liburuxka** inguru banatuko dira aipatutako udalerrietan.

Leloa

D bitamina. Aberastu bere heziketa!

Helburua

Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei D ereduari buruzko informazioa ematea eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea.

Parte-hartzaileak

Bizkaiko **23 udal** eta **3 mankomunitate**. Guztira, **45 udalerri**:

Arrieta • Abanto-Zierbena • Arrigorriaga • Balmaseda • Berango • Berriz • Bilbao • **Enkarterri** • Erandio • Etxebarri • Fruiz • Gamiz-Fika • Gatika • Gordexola • Laukiz • Leioa • Maruri-Jatabe • Mungia • Muskiz • Ortuella • Sestao • **Txorierri** • Urduña • **Uribe Kosta** • Zaldibar • Zierbena

Hartzaileak

Gutxi gorabehera, kanpainaren sustatzaile diren udalerrietan bizi eta 2-3 urteko umeak dituzten 7600 familia.

Osagarriak

Kanpainaren osagarri nagusiak hiru dira:

- Udaleko ordezkarien batek (alkateak edo euskara zinegotziak) sinatutako **gutuna** euskarazko ereduari ikasteak dakartzan abantailen berri ematen duena.
- Gutuna bidaltzeko **gutunazala**. Gutunazalaren beraren barruko aldean agertzen dira D ereduak aukeratzeko arrazoiak.
- Eskolan hasiko diren neska-mutikoentzako **oparia** (kanpainaren leloa idatzita duen neurgailua).
- Zenbait udalerrikan kanpainaren berri emateko **kartelak** ere banatuko dira. Kartelak haurreskoletan, osasun-etxeetan eta 2-3 urteko haurren gurasoak ibili ohi diren tokietan jarriko dira.